

Tolosako Herritarren Batzarra, zertarako eskatu nahi dizugu baimena?

Argazki batzuk atera eta bideo zein audio batzuk grabatu nahi ditugu

Argazkiak ateratzeko eta bideoak zein audioak grabatzeko baimena eskatu nahi dizugu. Zure baimena ematen baduzu, argazki/bideo/audio horiek erabiliko ditugu Herritarren Batzarraren prozesua komunikatzeko. Horiek argitaratzearen ondorioz, baliteke beste batzuek ikustea zuk proiektuan parte hartu duzula, baina argazki horiek ez dute lotura zuzenik izango zuk saioetan partekatutako ikuspuntuekin, bizi-esperientziarekin edo istorio zehatzekin.

Elkarrizketa egitea

Tolosako Herritarren Batzarrean zure parte hartzea nolakoa izan den jaso eta komunikatu nahi dugu. Lehen aldia da horrelako egitasmoa inplementatuko dela gure lurraldean, eta hori beste herri batzuetan garatzeko aukera ikusi da. Zuen esperientziak eta ikuspuntuak baliagarriak izango dira horrelako egitasmo batean parte hartzeak zer esan nahi duen komunikatzeko.

Jarraipen Batzordean parte hartzea

Jarraipen Batzordearen helburua da prozesuan aniztasun ideologikoa bermatzea, baita askotariko ezagutza batzea ere. Herritarren Batzarraren diseinua behatzen dute Tolosako herriaren interes eta beharrekin lotuta dagoela ziurtatzeko. Horretan alderdi politikoetako ordezkariak eta deliberazio-prozesuetan nazioarteko adituek parte hartzen dute. Hurrengo Jarraipen Batzordearen bileretan Tolosako Herritarren Batzarreko kideak gonbidatu nahi zaituztegu. Interesa baduzue, mesedez, dokumentuan adierazi, eta pertsona horien artean aleatorioki bi pertsona aukeratuko ditugu Jarraipen Batzordeko bileretan parte hartzeko.

Zure informazio pertsonala babestuko dugu.

Deliberazio-saioetan partekatzen duzun informazioa Herritarren Batzarraren gomendioak sortzeko erabiliko duzue. Proposatutako gomendio-kolektiboak argitaratuko ditugu. Baina, ez da publiko egingo zein herritarrek bozkatu duen zein gomendioren alde edo kontra.

Baimena sinatzen badut, ondoren Iritziz aldatu dezaket?

Bai, iritziz aldatu ezker, idatzi edo deitu Tolosako Udalari, eta zuk egindako eskaera bideratuko dute talde sustatzaile zein erraztaileen kideei.

Baimen-formularioa

Datu pertsonalak

Ni (izen-abizenak) _____

NAN edo AIZ (zenbakia eta letra) _____

Onartu egiten ditut ondorengoak

Argazkiak ateratzea BAI EZ

Bideoak grabatzea BAI EZ

Audioa grabatzea BAI EZ

Egitasmoan nire parte hartzeari buruz hitz egiteko Tolosako Herritarren Batzarreko talde sustatzaileko edo erraztaileko kideekin elkarrizketa egitea BAI EZ

Jarraipen Batzordearen bileretan parte hartzea BAI EZ

Ulertzen dut

1. Deliberazio-saioretan ateratako argazkiak, grabatutako bideoak edo jasotako ahots-audioak erabiliko direla Tolosako Herritarren Batzarraren egitasmoa komunikatzeko, bai orain bai etorkizunean.
2. Deliberazio-saioretan ateratako argazkiak, grabatutako bideoak edo jasotako ahots-audioak erabiliko direla Herritarren Batzarrei buruzko ezagutza eta esperientziak partekatzeko.
3. Egitasmoaren sustatzaileek eta erraztaileek ez dute datu edo informazio pertsonalik partekatuko legeak edo erregelamenduak baimendutakoak ez diren beste erakunde batzuekin.

Borondatez onartzen dut Tolosako Herritarren Batzarreko sustatzaileek eta erraztaileek goian zehaztutako edukiak jasotzea, hemen adierazitako helburuen arabera eta egitasmo honen mesedetan.

_____ Sinadura
Sustatzaile/Erraztailea (Lekukoa)

Data _____

_____ Sinadura
Partaidea

Data _____